

FUNTSEZKO JARDUERAK

Gizartea eta elkarbizitza hobetzeko asmoz, ikastaro bereziak antolatuko ditugu, norbanako bakoitzari hazkunde pertsonalerako eta komunitatean eragina izateko tresnak eskaintzeko helburuarekin. Tailer hauek egunerokotasuneko hainbat erronka jorratuko dituzte, hala nola mikromatxismoen aurkako borroka, autoestimua sendotzea, hezkidetzaren sexuala, zibersegurtasuna, eta espazio seguruak sortzea. Parte-hartzaileek esperientzia aberasgarri bat bizi ahal izango dute, monitore adituekin batera. Hona hemen eskainiko diren ikastaroen xehetasunak.

Lehenengo ikastaroan, **“mikromatxismoak gure egunerakotasunetik ezabatze” tailerrean**, Uxue Gorrotxategiren eskutik (Ikasle Abertzaleak taldeko militantea), parte-hartzaileek mikromatxismoen definizioa, horiek identifikatzeko moduak eta egunerokoan nola ezabatu aztertuko dituzte. Saioak astelehenetan (12:30etatik 14:00etara) eta ostegunetan (17:00etatik 18:30etara) izango dira gure Aurorako lokalean (Basurto).



“Autoestimua eta konfiantza lantzeko” tailerrean, Ander Altuna psikologoaren gidaritzapean eta EHU-ko psikologiako ikasle batzuekin, norberaren buruarekiko harremana hobetzeko eta bizitzako erronkei segurtasun handiagoz aurre egiteko baliabideak landuko dira. Tailer hau astelehenetan (17:00etatik 18:30etara) eta asteazkenetan (11:30etatik 13:00etara) egingo da. Non?

Ikuspegi feministatik abiatuta, **“hezkidetzaren sexuala lantzeko ikastaroa”** ere antolatu da, Jone Intxaurren monitorearen eskutik. Bertan, sexualitatearen inguruko gaiek berdintasunaren ikuspegitik nola landu daitezkeen eztabaidatuko da. Saioak asteazkenetan (18:30etatik 20:00etara) eta ostiraletan (12:00etatik 13:30era) izango dira. Non?



Gazteen heziketan garrantzitsua den beste tailer bat ere eskainiko da: **“neska-mutilak errespetuan eta berdintasunean hezteko moduak”**. Arantza Sanchez psikologoak gidatutako saio hauetan, haur eta gazteei balio horiek transmititzeko estrategiak aztertuko dira. Tailerra astearteetan (17:30etatik 19:00etara) eskainiko da. Non?

Teknologia erabiltzeko moduak kezka iturri izaten jarraitzen du, eta horri erantzunez, **“zibersegurtasunari buruzko ikastaro bat”** ere aurrean izango da. Itziar Zenitagoia poliziak sarean seguru egoteko estrategiak azalduko ditu, astearteetan (15:00etatik 16:30era). Non?





Kalean segurtasuna lantzeko interesa dutenentzat, Toughchikas elkarteak **erasoei aurre egiteko estrategiak irakatsiko dituzte**. Saioak asteartean (11:30etatik 13:30era) eta ostiraletan (17:00etatik 19:00etara) izango dira. Non?

Azkenik, **“espazio seguruak eta emakumeen zirkuluak antolatzeko tailerra”** ere eskainiko da. Ariane Mateo monitorea gidatuko duen tailer honetan, emakumeentzako ingurune seguru eta indartzaileak sortzeko ideiak eta esperientziak partekatuko dira. Ostiraletan (17:00etatik 18:00etara) egingo da. Non?



Ikastaro hauek guztiak aukera paregabea dira elkarbizitza hobetzeko, harremanak indartzeko eta norbanakoen hazkunde pertsonala sustatzeko. Animatu parte hartzera eta ekin zure hazkunderako bideari!

Eskaintzen ditugun tailerrez gain, gure aplikazioak zerbitzu desberdinak eskaintzen ditu lehen aipatu dugun bezala.

Aplikazio honek alarma isil bat eskaintzen du, aplikazioa deskargatu ondoren aurkitzen den botoi sekretu bat sakatzuz aktibatzen dena. Aplikazioa botoi hau sakatzen duzun momentuan audioak eta bideoak grabatzen hasiko da, poliziarekin eta zure larrialdietarako kontaktuekin ere partekatuko da, horrez gain, zure ubikazioa aktibatuko da eta partekatuko da ere. Aplikazioaren barruan eguneroko pribatu bat ere aurkituko duzu, non askatasunez adierazteko askatasuna edukiko duzu. Honetaz guztiaz gain, txat bat barne hartzen du, non zure esperientzia pertsonalak partekatu eta besteenak entzun ahalko dituzuz. Hau lagungarri izan daiteke inorekin hitz egin ezin duzunean eta bakarrik sentitzen zarenean.

